Eta, 2017ko ekainaren 23an behin betirako onartu zen 2017.urteko ekitaldirako Aurrekontua Gauzatzeko Udal arauaren aldaketa, horren ondorioz, "edozein motako 2.000€-tik gorako gastuak alkate dekretu bitartez baimendu eta erabili beharko dira. Baimen horiek ekitaldi bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen egin beharko dira, hau da, ez da prozedura honen bitartez egindako gasturik onartuko egun horretatik aurrera". Ondorengo faktura hauek alkate dekretu hori gabe iritsi dira.

e) Gastua onartzea eta esleitzea falta zaizkie:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2017/09/06	912531	Blanco Aristondo Carlos	Ejecucion de rampa y paso en jardin Herri eskola	12.455,74
2017/09/11	2435	Etxaniz Odriozola Anjel	Brankan egindako lanak	2.566,89
2017/09/18	149	Lujan Ramirez Victor Manuel	Aitzuri 4ko lokalean egindako lanak	2.157,91
				17.180,54

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, eraikuntza publikoen garbiketaren kontratua. Kontratu honek lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Mementoz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaian 2017ko azaroaren 6an.
Zumaia Kontu-hartzailea



760/2017 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2017ko azaroaren 6an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (10/2017)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, egoera irregularreko kontratuak dituztenak, eta indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2017/09/30	2017/293	GESMUNPAL	UZTAILA	2.597,43
2017/10/31	2017/354	GESMUNPAL	ABUZTUA	537,78
2017/10/31	2017/355	GESMUNPAL	IRAILA	805,84
2017/09/30	3343233094	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Algorri	64,69
2017/09/30	3343233095	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Alondegia	102,18
2017/09/30	3343233096	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Ardantzabide	64,69
2017/09/30	3343233097	SCHINDLER, S.A.	IRAILA E.P.A.	87,18
2017/09/30	3343233098	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Foronda	72,19
2017/09/30	3343233099	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Jubilatuen etxea	72,19
2017/09/30	3343233100	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Jadarreko igogailuak	245,09
2017/09/30	3343233101	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Aita Mari Ikastetxea	72,19
2017/09/30	3343233102	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Sagarbide	72,19
2017/09/30	3343233103	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Udaletxea	72,19
2017/09/30	3343233104	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Torreberri	72,19
2017/09/30	1706843	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Branka	1.073,09
2017/09/30	1706844	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Udaletxea	2.790,02
2017/09/30	1706845	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Udaltzaingoa	643,85
2017/09/30	1706846	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Ludoteka	804,82
2017/09/30	1706847	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Turismo	643,85
2017/09/30	1706848	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Algorri	740,92
2017/09/30	1706849	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Gaztetxola	214,62
2017/09/30	1706850	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Kaleko Komunak	2.924,15
2017/09/30	1706851	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Alondegia	3.111,94
2017/09/30	1706852	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Aita Mari Ikastetxea	5.901,96
2017/09/30	1706853	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Sagarbide	9.550,45
2017/09/30	1706854	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Arrangoletako haurtzaindegia	1.985,21
2017/09/30	1706855	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Jubilatuen etxea	1.609,63
2017/09/30	1706856	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Bake epaitegia	214,62



2017/09/30	1706857	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Markesina	80,48
2017/09/30	1706858	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Aita Mariko haurtzaindegia	1.985,20
2017/09/30	1706859	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Oikiako eskola	1.609,63
2017/09/30	1706860	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Brigada	107,30
2017/09/30	1706861	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA E.P.A.	643,85
2017/09/30	1706862	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Jadarreko igogailuak	209,69
2017/09/30	1706863	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Foronda	160,97
2017/09/30	1706864	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Aradantzabideko igogailua	212,98
2017/09/30	1706865	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Torreberri	536,55
2017/09/30	1706866	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	IRAILA Ubillos	712,47
2017/10/31	1707707	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Branka	1.073,09
2017/10/31	1707708	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Udaletxea	2.790,02
2017/10/31	1707709	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Udaltzaingoa	643,85
2017/10/31	1707710	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Ludoteka	804,82
2017/10/31	1707893	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Turismo	643,85
2017/10/31	1707894	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Algorri	740,92
2017/10/31	1707895	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Gaztetxola	214,62
2017/10/31	1707896	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Kaleko Komunak	2.924,15
2017/10/31	1707897	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Alondegia	3.111,94
2017/10/31	1707716	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Aita Mari Ikastetxea	5.901,96
2017/10/31	1707717	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Sagarbide	9.550,45
2017/10/31	1707718	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Arrangoletako haurtzaindegia	1.985,21
2017/10/31	1707719	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Jubilatuen etxea	1.609,63
2017/10/31	1707720	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Bake epaitegia	214,62
2017/10/31	1707721	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Markesina	80,48
2017/10/31	1707722	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Aita Mariko haurtzaindegia	1.985,20
2017/10/31	1707723	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Oikiako eskola	1.609,63
2017/10/31	1707724	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Brigada	107,30
2017/10/31	1707725	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA E.P.A.	643,85
2017/10/31	1707726	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Jadarreko igogailuak	209,69
2017/10/31	1707727	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Foronda	160,97
2017/10/31	1707728	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Aradantzabideko igogailua	212,98
2017/10/31	1707729	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Torreberri	536,55
2017/10/31	1707730	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	URRIA Ubillos	712,47
2017/10/09	2017/56	URBIETA - EGAÑA	3. HIRUHILEKOA: AITA MARI ARETOAREN KUDEAKETA	8.056,74
2017/10/09	2017/57	URBIETA - EGAÑA	UZTAILA Antzerki eta ikuskizunetarako materiala	441,38
2017/10/09	2017/58	URBIETA - EGAÑA	ABUZTUA Antzerki eta ikuskizunetarako materiala	478,34
2017/10/09	2017/59	URBIETA - EGAÑA	IRAILA Antzerki eta ikuskizunetarako materiala	344,27
2017/09/30	17A0010	U.T.E. ZUMAIA	IRAILA Zumaia berdegune, parke, lorategi eta zuhaitzak mantendu, zaindu, aldatu eta hobetzeko zerbitzua.	12.144,02
2017/09/30	3478690	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	ABUZTUA : NO DEPENDIENTES	4.992,51
2017/09/30	3478691	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	ABUZTUA : DEPENDIENTES	8.167,96
2017/10/09	3481592	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	IRAILA : NO DEPENDIENTES	4.070,31
2017/10/09	3481593	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	IRAILA : DEPENDIENTES	9.090,16
2017/09/30	259/17	KASTORE GEST, S.L.	IRAILA Liburutegia	654,50
2017/09/30	260/17	KASTORE GEST, S.L.	IRAILA - Kultura saila	462,92



2017/09/30	270/17	KASTORE GEST, S.L.	Olarro eguna	481,76
2017/10/31	286/17	KASTORE GEST, S.L.	URRIA - Kultura saila	731,37
2017/10/31	296/17	KASTORE GEST, S.L.	URRIA Liburutegia	133,12
2017/10/31	300/17	KASTORE GEST, S.L.	Aldizkariaren banaketa urriaren 19an	1.008,14
2017/10/31	303/17	KASTORE GEST, S.L.	Urriaren 27 eta 28an, paol muturreko dikea ikustera bidaiak	704,00
2017/07/31	1700168	HARRESPIL	UZTAILA	3.498,38
2017/08/31	1700193	HARRESPIL	ABUZTUA	3.498,38
2017/09/30	1700209	HARRESPIL	IRAILA	3.498,38
2017/07/31	C07170024	ETXEA Climatizaciones	UZTAILA- Udaletxea	499,16
2017/07/31	C07170073	ETXEA Climatizaciones	UZTAILA- Alondegia	416,28
2017/08/31	C08170024	ETXEA Climatizaciones	ABUZTUA- Udaletxea	499,16
2017/08/31	C08170073	ETXEA Climatizaciones	ABUZTUA- Alondegia	416,28
2017/09/30	C09170024	ETXEA Climatizaciones	IRAILA- Udaletxea	499,16
2017/09/30	C09170073	ETXEA Climatizaciones	IRAILA- Alondegia	416,28
2017/10/10	M10170004	ETXEA Climatizaciones	Irailako rebisioan (Udaletxea) erabilitako materialak	177,62
				147.255,10

d) Egoera irregularreko kontratuak:

2017/10/02	070	AXOMA 47 HIRUKO S.LU	IRAILA Komunikazio zerbitzuak:Prentsa bulegoa, komunikazio plana, komunikazio aholkularitza, aldizkariaren prestaketa, ikusentzuneakoak	2.456,30
2017/10/02	19	LEIKEKOM, S.L.	IRAILA AHOLKULARITZA	1.210,00
2017/09/29	273/17	KASTORE GEST, S.L.	IRAILA informatzaile turistikoak	3080,58
2017/11/02	080	AXOMA 47 HIRUKO S.LU	URRIA Komunikazio zerbitzuak:Prentsa bulegoa, komunikazio plana, komunikazio aholkularitza, aldizkariaren prestaketa, ikusentzuneakoak	2.456,30
2017/11/02	21	LEIKEKOM, S.L.	URRIA AHOLKULARITZA	1.210,00
				10.413,18

e) Gastua onartzea eta esleitzea falta zaizkie:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2017/09/06	912531	Blanco Aristondo Carlos	Ejecucion de rampa y paso en jardin Herri eskola	12.455,74
2017/09/11	2435	Etxaniz Odriozola Anjel	Brankan egindako lanak	2.566,89
2017/09/18	149	Lujan Ramirez Victor Manuel	Aitzuri 4ko lokalean egindako lanak	2.157,91
				17.180,54

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Zumaian, 2017ko azaroaren 6an.

Oier Korta Esnal
Zumaia Alkatea.



OIER KORTA: Hau badakizue plenoetako klasiko bat dela 9 kontratu iraungitako horiek ordaintzeko agindua ematen dut eta zerbitzua eskaini ahal izateko, besterik gabe

4.2.- IRIZPENAK:

4.2.1.- %95EKO HOBARIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, CEIP OIKIA HLHI IKASTETXEKO "ERAIKIN BERRIA EGITEKO" PROIEKTUAN.-

ORDENANTZA FISKALETAN %95EKO HOBARIA BARNERATZEARI BUZUKO IRIZPENA: CEIP OIKIA HLHI IKASTETXEKO "ERAIKIN BERRIA EGITEA" PROIEKTUAN

AURREKARIAK

2017ko martxoaren 9ko datarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Programen arduraduna den Juan Jose Agirrezabala Mantxolak, 2017ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saileko lurralde ordezkariaren ordezkoa (Espedientea: 2017 HBLH0003), Zumaia udalari honako eskaera egin dio: **"Udalerri horretan indarrean den Eraikuntza eta Obren Gaineko Zergen ordenantzak bere 3. Artikuluan dioenaren arabera, %95eko hobariaren izatea, interes bereziko edo udal erabilerakoa izanik"**.

IRIZPENA

Horregatik, 2017ko urriaren 4an ospatzen den batzorde honek onartzen du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea "eraikin berria egitea" CEIP Oikia HLHI ikastetxean, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 5 (EAJ(2), EH BILDU(2), PSE-EE(1))
Aurkako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzen da.

Zumaian, 2017ko urriaren 4an.
Lioba Maiza Recondo
Kontu-hartzailea.



Zumaia Udala

2017IAKU0007-006-003

Alkatea: Puntu honen inguruan dakizuen bezala aurreko plenoan gai zerrendatik kanpo gelditu zen, gero ezin izan genuen bozkatu deialdia bidalita zegoelako eta zerrendatik kanpo gelditu zelako eta gaur besterik gabe ekartzen dugu bozkatzeko irizpen hau,

Dakizuen bezala hau da hobari bat ematen zaiona Oikiako herri eskolari interes publikoko ekimen bat aurrera eramaten delako eta legeak horrela baimentzen duelako, udalak horrela onartzen badu plenotik pasatuz gero %95eko hobaria arte iristeko hala esaten du legeak eta maximoa ematen zaio gai honen inguruan,

Batzordetik pasa dugu eta orain bozkatzera pasatuko ginateke zuzenean,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: CEIP OIKIA HLHI IKASTETXEKO "ERAIKIN BERRIA EGITEKO" PROIEKTUAN, %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEN DA .-

Hitza eskatzen du Josebak,

JOSEBA JOSU AZPIAZU: Bozka eta hori argia da, baiezkoa ematerakoan baina konturatu naiz, ez dakit, egia esan da bere garaian hau diktaminatu zela orain dela hilabete bat edo... ez dakit, berriro ere izenburuan ondo ipinita dagoen baina bueno... bakarrik da formagatik, igual ondo dago baina bueno...

Jartzen du "ORDENANTZA FISKALETAN %95EKO HOBARIA BARNERATZEARI BURUZKO IRIZPENA" baina, o sea, hobaria ez da... ordenantza fiskaletan aspalditik dago, da ordenantza hori aplikatzea Oikiako eskolari esango nuke eta erderaz ere jartzen du:

" DICTAMEN SOBRE LA INCLUSION EN LAS ORDENANZAS FISCALES DE UNA BONIFICACION" o sea, ordenantzaz sartzea ez da, hori aspalditik dago eta izango litzateke hori aplikatzea, baina bueno, ez dakit, lehendik kopiatu duten edo... baina bueno sin más.

ALKATEA: Oso ondo, apuntatuta geratzen da eta berez, zuk esaten duzun bezala da, ORDENANTZA FISKALETAN JASOTA DAGO IA, APLIKATZEA DA ORDENANTZA FISKALETAN aldaketa bat gaur hemen proposatzen dena.

Besterik gabe, aurrera joko dugu



4.2.2.- 2016KO GASTUAK, 2017KO AURREKONTUARI ERANSTEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA

2017KO AZAROAREN 23KO OGASUNEO BATZORDEAREN IRIZPENA, 2016KO GASTUAK 2017KO AURREKONTUARI ERANSTEA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

1.- UTE LV Zumaia kale garbiketa zerbitzua 2016 ekitaldian zehar % 21eko BEZarekin fakturatu zuen, Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenaren 91.2. artikulua dioen bezala %10ean egin beharrean. Horretaz konturatzean, ordu-arte fakturak konpontzeko eskatu zitzaizen eta konponketa egin bitartean ordainketa aginduak gelditu ziren.

2.- Behin dagokion BEZaren konponketa egin ondoren, 2016 ekitaldian kontabilizatu eta ordaindu gabe geratu ziren azaro eta abenduko fakturak ordaindu behar dira. Horretarako, 2016. ekitaldiko gastu hauek, 2017ko ekitaldiko aurrekontuari erantsi behar zaizkio.

Hornitzailea	Azalpena	Data	Kopurua
UTE LV Zumaia.	Azaroa: Kale garbiketa zerbitzua	2016-11-30	31.000,94 €
UTE LV Zumaia	Abendua: Kale garbiketa zerbitzua	2016-12-31	31.000,94 €
	GUZTIRA		62.009,88 €

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko azaroaren 23ko Ogasuneko Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 4 (2 EAJ + 2 EH BILDU)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 34. artikuluan ezarritakoa beteaz, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- 2016. ekitaldiko gastuak, **62.009,88 euroko** zenbatekoaz, 2017ko ekitaldiko aurrekontuari eranstea onartzea.



ALKATEA: Gai honen inguruan dakizuen bezala ogasuneko zinegotzia Marikruz da, gaur famili ezbehar bat medio ezin izan du hemen egon azalpenak emateko gai honen inguruan, batzordean tratatu izan duzue, irizpenarekin dator pleno honetara eta hau da 2016ko bi fakturen inguruan desajuste bat edo zintzilik geratu ziren bi faktura horiek kontuak itxita daude 2016koak baina aurre egiteko 2017ko aurrekontuari eransten zaizkio bi faktura hauek eta aldaketa hori plenotik pasatu beharra dauka eta horregatik ekarri dugu hona, pixkat azalpen modura,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU,

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. 2016. ekitaldiko gastuak, **62.009,88 euroko** zenbatekoaz, 2017ko ekitaldiko aurrekontuari eranstea onartzen da.

5.- PERTSONALA.-

5.1.- IRIZPENAK:

5.1.1.- "B TALDEKA"-KO UDAL LANGILEEI DAGOKIEN HIRURTEKOAREN KOPURUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA

2017KO AZAROAREN 23KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA B TALDEAREN HIRURTEKOAREN PREZIOARI DAGOKION GEHIGARRIAREN KOPURUA IZENDATZEARI DAGOKIONA.

AURREKARIAK

1.- 2017ko irailaren 28ko Zumaia Udaleko Osoko Bilkurak beste gaien artean informatikari teknikari laguntzailearen eta kontu hartzailetzako erdi mailako teknikariaren lanpostuen balorazioaren ondorio ekonomikoak onartu zituen.

2.- Informatika teknikari laguntzailea lanpostuaren balorazioaren ondorioetako bat izan da lanpostua C1 taldetik B taldera pasatzea.



3.- Balorazio berri hori kontuan izanik, aplikazioa aztertzeko unean, pertsonal saila konturatu da, talde horri dagokion hirurtekoaren prezioaren gehigarriari dagokion kopurua izendatu behar dela, sortu gabe baitago.

Horren arrazoia izan da, B taldea 2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak sortu zuela baina gaur egunera arte Udalean lanposturen bat aipatutako taldean baloratua izatearen kasua ez dela eman.

4.- Gainontzeko taldeei dagokien kopuruak, Udalhitz Toki Erakundeetako Langileen Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenak izendatu zituen 2006ean. Une hartan B taldea legez sortu gabe zegoenez, ez zen kopururik izendatu. Orduetik, gainontzeko taldeei dagokien hirurtekoen prezioei Udalean onartu izan diren ordainsarien igoerak eta/edo jaitsierak aplikatu zaie.

5.- Giza baliabideen teknikariak proposamen bat egin du eta langileen ordezkariekin negoziatu behar den gaia izanik, proposamena azaldu die. Beraien oniritzia azaldu dute proposamenaren aurrean.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko azaroaren 23ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Marikruz Alvarez (EAJ)
Gotzon Embil (EAJ)
Alex Oliben (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundeetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Ondoren eranstean den taulan azaltzen den B taldearen hirurtekoaren prezioari dagokion gehigarriaren kopurua izendatzea:

HIRURTEKOEN PREZIOAK-2017			Osagarriaren %	
OINARRIA	OSAGARRIA	GUZTIRA		
A1	43,52	15,98	59,50	36,72%
A2	35,48	13,36	48,84	37,66%
B	31,14	15,57	46,71	50,00%
C1	26,85	17,29	44,14	64,39%
C2	18,27	17,57	35,84	96,15%
E	13,75	17,91	31,66	130,25%

Zumaian 2017ko azaroaren 23an
Marikruz Alvarez Aparicio
Pertsonaleko batzordeburua



Zumaia Udala

2017IAKU0007-006-003

ALKATEA: Puntu honetan ere udalean balorazio bat egin dela bi lanpostuena eta balorazio horrek eman duen emaitzen arabera, aldaketa bat jaso behar da RPT-an oker ez baldin banago eta horregatik ekartzen da hirurtekoen kopuru hori onartzea, bidezko bada, pleno honetan, ez dakit honen inguruan norbaitek zerbait esaten daukan edo zuzenean bozkatzera pasako garen,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- "B taldearen hirurtekoaren prezioari dagokion gehigarriaren kopurua izendatu eta onartzen da.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

5.1.2.- ZUMAIKO UDALEKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIO- PLANAREN ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2017KO AZAROAREN 23KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA ZUMAIKO UDALEKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIO- PLANAREN ONARPENARI DAGOKIONA.

AURREKARIAK

1.- Azaroan 8ko 31/1995 Legeak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoak, 16. artikuluan, arautzen du, lan-arriskuen prebentzioa erakundearen kudeaketa-sistema nagusian txertatu behar dela, hala erakundeko jarduera guztiei dagokienez, nola erakundearen hierarkia-maila guztiei dagokienez, lan-arriskuak prebenitzeko planaren inplementazio eta aplikazioaren bitartez.

2.- Legez izendatutakoaren bat, Lan-arriskuak Prebenitzeko Plan horrek, bildu behar ditu, alde batetik, erakundearen lan-arriskuak prebenitzeko ekintza gauza dadin beharrezkoa den antolaketa-egitura eta bestetik, erantzukizunak, eginkizunak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak.



Zumaia Udala

2017IAKU0007-006-003

3.- Guzti hori kontuan izanik, Udaleko Osasun eta Segurtasun Batzordean gaia landu ondoren, Zumaia Udaleko Lan-Arriskuak Prebenitzeko Plana azaltzen duen dokumentua osatu da. Aipatutako Batzordea osatzen dute, alde batetik, Udaleko Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren ardura eramateko Udalak kontratatuta duen Quirón Prevención, S.L. erakundearen teknikariak, bestetik, langile ordezkarien artetik eta aldetik izendatutako prebentzio ordezkariak eta azkenik, Udalaren aldetik izendatutako teknikariak.

4.- Jarraitu den prozesuari eta tramitazioei dagokienez, Osasun eta Segurtasun Batzordekideen aldetik Lan Arriskuak Prebenitzeko Plana jasotzen duen dokumentuaren behin betiko zirriborroa osatu ondoren, 2017ko azaroaren 8ko Pertsonal Batzordean aurkeztu da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko azaroaren 23ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Marikruz Alvarez (EAJ)
Gotzon Embil (EAJ)
Alex Oliden (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Ondoren eransten den Zumaia Udaleko Lan-Arriskuen Prebenitzeko Plana onartzea.

ALKATEA: Udalak martxan jarri du lan arriskuen prebentzio plana, batzordean hasi zarete dagoeneko lanean gai honen inguruan pertsonaleko sailetik eta gaur hona ekartzen dugu hasiera emateko prozesu honi, lanketa honi eta besterik gabe bozkatzera pasako gara inork esatekorik ez badauka zuzenean bozkatzera pasatuko ginateke,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 1.- Zumaia udaleko lan arriskuen prebentzio-



Zumaia Udala

planaren onartzen da.

2017IAKU0007-006-003

6.- PROPOSAMENAK:

6.1.- AMIANTOARI BURUZKO IDATZIA (EH BILDU-k aurkeztua KIDE SOZIALAK eskatuta).-

Zumaia Karta Sozialikoek ondorengo gogoeta luzatu nahi dizugu:

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak jasotzen dituen atal desberdinen artean

Osasun eskubidearena dago. Besteak bestea dio: " Pertsona guztien osasunerako eskubideak ingurumen osasuntsua aurreikusten du, baita ingurugiro osasuntsuak eta ziurrak lan-eremuan, komunitarioan eta elkarbizitzaerakoan ere. Botere publikoak behartuta egongo dira aintzat hartzea, bai ekimen publikoek, bai pribatuek osasunean izango dituzten ondorioak".

Aurtengo irailak 20an Zumaia Karta Sozialak ASVIAMIE-ABE Erekin (amiantoaren biktimen euskal elkarte) hitzaldi bat eman zuen amiantoari (isilik hiltzen duen mineralari) buruz.

Zer da amiantoa?

Amiantoa edo asbestoa, mineral desberdinez osatutako izen generikoa da, burni, magnesio, aluminio, kaltzio eta sodioaren silikato hidratatuak biltzen dituena. Itxura haritsua du eta zetazko elementuen antza, egitura kristalineoa eta malgutsun handia.

Zatitzen edo hausten denean fibra mehe ugarisortzen ditu. Xaflakorra eta erregaitza da. Beroa, korrosioa, hezetasuna, elektrizitatea eta eragin kimikoa ondo jasaten ditu.

Isolatze termiko eta akustiko bikaina da. Ezaugarri hauek eta prezio merkeak, amiantoaren erabilera ugaria izatera eraman du industrian, eraikuntzan, lorezaintzan, igeltsaritzan eta ehungintzan. XX. mendean zehar bereziki.

Amiantoa duten materialek ez dute arrisku berdina. Friabilitatea (fibrak askatzeko erraztasuna), kontserbazioa eta berarengan egindako lanak dira arrisku maila gehitzen edo gutxitzen dituzten faktoreak. Zentzu honetan, friabilitatea duten materialak dira arriskutsuak.

Material friableak.

- a) Isolatze termiko, akustiko eta suteen aurka erabilitako morteroa. Galdaren eta tuturerian erabilitako forroetan, baita igeltseriratzako piezetan ere.
- b) Mantak, oihal ignifugoak, eskularruak, amantalak, lan-jantziak eta abar egiteko erabilitako ehunak.

Material ez friableak.

- a) Fibrozementua (amianto zementuduna). Zisternetan, biltegietan, kanaloietan, Lorezaintza-tresnetan, estalkietan eta abarretan erabiltzen da.
- b) Geruza asfaltikoak (betunarekin nahastutako amiantoa). Teilapetako



Zumaia Udala

2017IAKU0007-006-003

iragazgaitz modukoa. Giltzadurak egiteko txapetan eta kanaloien estalkietan ere erabiltzen da, galgetan eta lozagientzako igurtzi elementuetan bezalaxe.

Amianto ez friblea duten elementuen kontserbazio-egoera ona denean aukera gutxi dago inguruan fibrak barreiatzeko, baina euria, haizea eta temperatura aldaketekin bai.

Amiantoa duten materialen gainean egindako lanen artean, zulaketak, hausturak, ebaketak, lixatxeak... fibren askatze garrantzitsua sor dezakete.

Eraikuntzaren industria.

Amiantodun materialen %70 ekoizpenak sektore honetan erabiltzen ziren. Gaur egun beraien fibren eragina eragiketa hauetan datza: materielen kentze, ezabatze edo maneiatzean. Baita tutuen ebaketetan, eraikuntzen eta egituren eraisketa lanetan ere.

Bi eragiketa-mota dira arriskutsuenak biztanleriarentzat:

a) Amiantoa kentzearena. Fibrozementuaz eta amianto proiektatuaz arigara.

b) Amiantoa duten eraikuntzen eta instalakuntzen berritze eta konpontze lanak: berokuntza, klimatizazioa, isolamendu termiko eta akustiko sistemak, ura eta gasa bideratzeko lanak, sasi-teilatuak kentzea, itsasuntzi eta trenen konponketa, balazten zapatak konpontzea... Igeltseroak, arotzak, mekanikoak, iturginak, elektrizistak, muntaia eta instalakuntzak egiten dituztenak dira, besteak beste, material honekin topo egin dezaketena.

Nahiz eta 2002. urtetik debekatua egon, osasunaren gaineko kalteak amiantorekin kontaktuan izandako 20,30 edo urte beranduago ager daitezke. Gaitzak, ezintasun sortzaileak eta hilkorrak dira. Batzuk aipatzearen, asbestosis, birrikako eta laringeko minbizia eta mesoteliomak daude. Litekeena da beste minbiziak sortzea ere, giltzurrunean, digestio-aparatuan eta obarioetan

Guzti hau dela eta, mineral minbizidun honek, osasunari erreparatuz, gaur eguneta etorkizunean eragin eta eragingo dituen gaixotasunengatik, Zumaia Karta Sozialetik egokituz jo dugu Udalar eskari bat luzatzea, hau da, herriko instalakuntza publikoetan amiantoa izan dezaketen osagaiak lokalizatu eta zerrendatzea, ura bideratzeko tutuak eta eskudelak barne. Komenigarria litzateke ere amiantoa atzematea instalakuntza eta etxe partikularretan, nahiz eta jakin azken hauen izaera pribatuak ikerketak zaildu ditzaketela.

ASVIAMIE elkarteak esan digu ez dagoela datu fidagarriak jakiteko zeintzuk diren amiantoari buruzko inbentarioa egin duten Udalen kopurua jakiteko. Badakigu, ordea, Hernanikoak arazoari aurre egin nahi diola onartu zuten Ordenantzarekin.

Zumaia Karta Sozialetik, aipatutako Ordenantza hezurram itzeko urratsak ematera gonbidatzen zaitugu, herritarren ongizatea bermatze aldera ekimena izango dela uste dugulako.

Idatzi honekin batera Hernaniko udalaren ordenantza eta amiantoa izan dezaketen Zumaia hainbat lekuren argakiak doaz.

Begirunez

(Sinatua, Pello Enparan)
Zumaia, 2017-11-23

ALKATEA: Gaurko arratsaldean hiru proposamen aurkezten dira eta proposatzen dizuet, hiru proposamen hauen inguruan norbaitek ezer esateko baldin badauka, esaten dut batzordetik pasa ez direlako edo zuzenean onartzen ditugu denak eta bakoitza tratatzen hasten gara

Onartzen ditugu hiru proposamenak tratatea?

Batzordetik nola ez diren pasa; ba... onartzen dira hiru proposamenak mahaiari jartzea,



Lehenengo proposamenaren inguruan, Amiantoari buruzko idatzia, Idatzi hau Karta sozialeko kide batek sartu du, gai honen inguruan nik usten dut Alexek hitza hartu nahi duela, guk gure aldetik aldeko bozka emango dugula, guretzako delako gai bat herritarren osasunaren inguruan sentsibilizazio bat edo definizio bat ekartzen duela idatzi honetan ze eragin dauzkan amiantoak gizartean izan dituen urte luzeetan zehar, eta udalean sarrera eman zaion egitasmo edo lanketa horri ba... guk aldeko bozka eman diogu eta hartzen dugu konpromisoa lana egiteko idatzian jartzen duen bezala, jasotzen duen bezala lehenengo udal eraikinetan azterketa bat egitea amiantoa izan ditzaketen elementuen zerrendatzea eta horien inguruan ahal den neurrian lanketa bat egitea erretiratzeko edo pausoak hartzeko elementu horiek kentzeko, lehenengo lana identifikatu eta gero kentzeko lanketa horretan ez? Alde horretatik guk, aldeko bozka emango diogu mozio honi, ez dakit, Alexek eskatzen du hitza,

ALEX OLIDEN (EH BILDU) Pixkat gaia bere lekuan kokatzeko, ezta?

Idatzia nahiko luzea da nahiko tekniko da, denok irakurriko zenuen eta prentsakoak ere seguruena ba... atera ditzakete edo kopia bat izango dute eta igual irakurtzea baino merezi du pixkat lau edo bost pintzelada ematea, besterik gabe,

Eskubide Sozial kartako taldeak antolatu zuen duela pare bat edo hiru hilabete edo hitzaldia eta kasualitatea joan egin nintzen, modua banuelako, eta gaia nahiko ezkutuan dago gizartean eta gaia nik uste dut garrantzi handikoa dela, osasungintzari dagokio herritargoaren osasunari dagokio eta nik uste dut drama baten aurrean izan gaitezkeela, urte askoan egin izan da lan material honekin, bere ezaugarriak direla eta, eta seguruena urte asko dela ere jakinen gainean zegoen bere arriskuan zein ziren baina bueno...

2002. urte arte ez da debekatu erabilera.

Orduan, bueno, gero gainera gertatzen dena da gai edo material honen kalteak epe luzera azaltzen direla eta orain epaiketa asko eta gertatzen ari dira osasun arazoak dituzten eta hiltzen ari den jendearen inguruan.

Helburua besterik gabe mozio honena, nik ulertzen dudana da udal eraikinetan aurtengo aurrekontuetan behintzat, udal eraikinen sailkapen bat egitea edo eta zerrendatzea amiantoa edo fibrozementoa edo egon daitezkeen eraikinak eta ahal dela lan lerro bat ezartzea urteetan pixkanaka pixkanaka baita ere herri osoan ere egon daitezke nahiz eta eremu pribatuetan izan ba... hain gai korapilatsua eta hain gai arriskutsua izan da ba... komeniko litzateke pixkanaka-pixkanaka lana egiten joatea, besterik gabe identifikatzeko puntu arriskutsuak eta puntu arriskutsu horietan ziurtatzeko erabiltzen diren protokoloak, amiantoa edo fibrozementoa kentzeko zuzenak direla eta ez dela iruzurrik egiten jakinen gainean egon da gainera iruzur hori oso kaltegarria izan daitekeela herri osasunerako, orduan horregatik gure babes mozio honi eta aurrerantzean honen inguruan lana egiteko eskaera.

ALKATEA: Ez dakit, gai honen inguruan Arritxu Marañonek hitza hartzeko asmoa daukan,



Zumaia Udala

2017IAKU0007-006-003

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): No, simplemente para comentar que votaré a favor, que votaremos a favor, ya está.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Zumaiaiko Karta Sozialikoek aurkeztutako idatzia "AMIANTOARI dagokiona onartzen da

6.2.- UDAL BATZA OSATZEN DUTEN ALDERDI GUZTIEN IZENEAN: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA, 2017 –ADIERAZPENA-

ALKATEAK: Hau da hiru taldeak gaur hona ekartzen duguna eta irakurtzera pasako naiz,

"2017KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA Euskara auzolan

Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez

Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...



Zumaiako Udala

2017IAKU0007-006-003

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

Bide berriak, bide guztiak

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzak ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.

Ideien konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunetik errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

365 egun

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitateara egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegoren eta Erronkarin.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita. "

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0



ERABAKIA: Euskararen nazioarteko eguna 2017 inguruko proposamena, onartu da.-

ALKATEA: hurrengo puntura pasatuko gera, Hirugarren proposamena eta azkena gaurkoa, puntu honen inguruan EH Bilduren proposamena izan da eta azkenean hiru talde politikoak ekartzen dugu proposamena hirurak babesa ematen dioguna eta irakurtzera pasako naiz gaurko azken proposamena,

6.3.- EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA:

6.3.2.- LANBIDE HEZIKETARI BURUZKOA,

“Urola Kosta eskualdean lanbide heziketa arloak garrantzi handia du, gazte eta langabetu askok lan mundura salto egiteko ezinbesteko prestakuntza lana burutzen baitu. Berrikuntza teknologikoan eta enpresa sare zabal batean oinarritutako lanbide heziketan urteetako tradizioa duen eskualdea gara eta ezinbestekoa da hezkuntza mota hori ere babestu eta sustatzea.

Hala ere, udal eta udal elkarteko administrazioetan hezkuntza arloan lanean ari direnengandik laguntza ekonomikoen premia larrien ahotsak entzuten ari gara behin eta berriro, dagokion hezkuntza saileko arduradunen aldetik iristen ez den erantzun azkar eta eraginkorraren zain.

Inbertsioak egin ahal izateko eskualdeko udal elkarteari laguntza eskatu zaio Lanbide Heziketa arlotik eta garbi dugu tokiko administrazioetatik, hezkuntza komunitatearekin elkarlana bultzatu eta kalitatezko hezkuntza sistema izan dezagun, halako eskaerei erantzun egin behar diegula, eskumena duen Hezkuntza sailari hartu beharko lituzkeen konpromezuak betetzeko eskatuz.

Jaurlaritzak eta hezkuntza sailak aplikatutako murrizketak salatu izan ditu EH Bilduk, eta orain gure eskualdean hainbat ikastetxe pairaten ari diren egoera murrizketa horien ondorio garbia da.

Legebiltzarrean aurrekontuak lantzen ari diren garai honetan, Lanbide Heziketako ikastetxeen inbertsio beharrei erantzuteko neurri egokiak proposatu nahi ditugu.



Aipatutako kontuan izanik, Zumaia udalbatzarrak honako puntuak onartzen ditu:

MOZIOA

1. Zumaia udalbatzarra adierazten du pertsonak (ikasle, irakasle, zein langileak, baita langabetuak ere) euren prestakuntza bermatzeko baldintza duinak ziurtatu behar direla; horrekin batera, tokiko garapen jasangarria, berrikuntza eta ikerketa, sortzailera eta ekintzailera, nazioararteratzea eta metodologia aurreratuak izan behar dute hezkuntzako ardatz nagusiak.
2. Zumaia udalbatzarrarentzat helburu izan behar du Lanbide Heziketaren kalitatea areagotzeak, garapen pertsonalera eta lan-jardunera bideratutako prestakuntza-eskaintza osatzeak, pertsonen lanbiderako gaitasunak bizitzan zehar hobe daitezzen sustatzeak, enplegu egonkorrerako eta kalitatezko aukerak areagotzeak, erronka eta proiektuen emaitzen arabera ikaskuntzaren ikuspegian oinarritutako sistema malguak eratzeak, ikasketen uzte goiztiarraren eta eskola-porrotaren aurkako politikei balore positiboak eta laguntza emateak eta trebetasun sozialak, komunikazio-gaitasuna, enpatia eta abar sustatzeak.
3. Zumaia udalbatzarrak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2018ko aurrekontuetan Lanbide Heziketako ikastetxeetan egin behar diren inbertsioei irtenbide integral eta egokia emateko aurrekontu partidak sor eta bultzatzea, hurrengo urteetan ere arazo horri erantzun dion plangintza bati jarraituz.
4. Mozio honen berri, EAE-ko Legebiltzar Taldeei, Hezkuntza Sailburuari, Urola Kostako Udal Elkarteari eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeei emango zaie
5. Zumaia udalbatzak agente ekonomiko eta sozialei Lanbide Heziketarekiko konprometua eskatzen die, bereziki, eskualdeko enpresei gazteen heziketarekin eta enpleguarekin zuzenean konprometitu daitezela eskatzen die, enpresa bakoitzaren aukeren arabera. LHko zentroekin elkar lana sustatuz, programetan parte hartuz eta hitzarmenak sinatuz, beti ere ikaslearen formakuntza helburu eta praktikaldi eta baldintza duinak errepetatuz."

Alex Oliden Antia
Zumaia EH Bilduren izenean
Zumaian, 2017ko azaroaren 27an

ALKATEAK: Guk mozio honen inguruan udal gobernuak bat egiten du eta ezinbesteko ikusten genuen mozio bateratu bat aurkeztea gure udal gobernuan egin behar edo lan lerro garrantzitsu bat hezkuntza izan da eta bi urte hauetan eman ditugu lehen pauso batzuek eta alderdi horretatik hezkuntza lehen lerroan jartzen dugu eta nola ez gaur hona ekartzen den proposamen hau hiru talde hauen artean, ez dakit honen aurrean bozkatu aurretik hitza Alex Olidenek eskatzen du hitza,

ALEX OLIDEN (EH BILDU): Sustatzaileak garen aldetik, baiezkoa emango dugu eta pozten gara modu bateratuan azaltzeko lanketa egin izan dugulako eta besterik gabe, aurrera



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Udal gobernuaren izenean aurkeztutako proposamena lanbide heziketari buruzkoa, onartzen da.-

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamar minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria